



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

---

## OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Bilera mota:** Arrunta  
**Eguna:** 2022.12.22  
**Ordua:** 17:00  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

### Bertaratuak:

- ALKATEA: Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.

### Bertaratu ez direnak:

- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

### AZTERGAIAK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. 10/2022 aurrekontu aldaketaren onespena.
3. Arantzako Bake Epaitegiko ordezkoko epailearen izendapen onespena.
4. 6. Exekuzio Unitatearen (UE6) aldaketa egituratzailea. Hasierako onespena.
5. Arantzako LAEE egokituari onespena.
6. Balorazio Ponentzia berrikusteko prozedura hastea.
7. Landa Garapen eta Ingurumen Sailak 2022ko azaroaren 16an aurkeztutako Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoa eta nekazaritza eta elikadura produktuetan haren adierazpena arautzen dituen.
8. 2023ko aurrekontua eta exekuzio oinarriak. Hasierako onespena.
9. 2023ko plantilla organikoa. Hasierako onespena.
10. Alkate ebazpenak.

11. Galderak eta eskaerak.
12. Arnasa eta bidea zabaltzeko udalerrri euskaldunen adierazpen instituzionala.
13. María del Carmen Rincón Huertaren hilketa matxista gaitzesteko adierazpen instituzionala.
14. 2023ko lan egutegia eta egun baliogabeen deklarazioa.

## 1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA

2022/11/21eko akta aho batez onartu da.

### 2. 10/2022 AURREKONTU ALDAKETAREN ONESPENA.

Idazkariak azaldu du 2022 urte bukaeran Donato Larretxea aizkolariari omenaldia egin zitzaiola. Ekitaldiaren plangintzaren barruan bazkari bat zegoen antolatuta. Halaber, bazkariko sarrerren salmenta bidez 3.625,00 €-ko sarrerak izan dira eta kopuru hau egindako gastuak finantzatzeko erabiliak izan dira. Horrela bada, diru-sarrerren bidezko kredituak sortzeko aurrekontu aldaketa proposatu du idazkari-kontuhartzaileak.

GASTUA:		
1 3410 2260904	DONATO LARRETXEA EKITALDIA	3.625,00 €
FINANTZAKETA:		
1 3999007	DONATO LARRETXEA EKITALDI SARRERAK	3.625,00 €

Diru-sarrerren kredituak sortzeko aurrekontu aldaketa denez, 13 oinarrian xedaturikoari jarraiki, osoko bilkurako akordio bidez onetsiko beharko da aldaketa, akordioarekin aski izanik hau betearazlea izan dadin.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- 10/2022 aurrekontu aldaketari onespena ematea.

### 3. ARANTZAKO BAKE EPAITEGIKO ORDEZKO EPAILEAREN IZENDAPEN ONESPENA.

Arantzako Bake Epaitetikoko ordezkoko epailea hautatzeko prozesuan parte hartzeko eskaera bakarria aurkeztu dela jakinarazi du idazkariak.

Horrela bada, Epaileri buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 6. artikuluan xedatutakoari jarraiki, ordezkoko bake epailearen izendapena osoko bilkuraren akordio bidez egingen da, kideen legezko zenbakiaren gehiengo absolutuaren botoarekin.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KIDEEN LEGEZKO ZENBAKIAREN GEHIENGO ABSOLUTUAREN ALDEKO BOTOAREKIN, ERABAKI DU:

1.- Maria Isabel Damboriena Damboriena ordezko bake epaile izendatzea, honako hauek izanik jakin beharreko datuak:

- Jaioteguna: 1961eko apirilaren 8a.
- Jaioterria: Etxalar (Nafarroa).
- Aitaren izena: Jose Maria.
- Amaren izena: Purificación.
- N.A.N. zk.: 72663166W
- Helbidea: Larreta Karrika 9 – Zelalaldea, 31790 Arantza (Nafarroa).
- Lanbidea: Jubilatua.

2.- Izendapen-erabakia interesdunari eta Nafarroako Auzitegi Nagusiari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

#### **4. 6. EXEKUZIO UNITATEAREN (UE6) ALDAKETA EGITURATZAILEA. HASIERAKO ONESPENA.**

Idazkariak eta Eneko Sarriasek, hirigintzako zinegotziak, Jose Antonio Bereau Maciciorrek eta Margarita Vergara Vergarak sustaturiko Arantzako Udal Planeko AASS aldaketa egituratzailearen nondik norakoak azaldu dituzte. Aldaketa hau UE-6 inguruko 5. poligonoko 558. eta 850. lurtzatiei eraginen lieke.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- Udal Planeko Arau Subsidiarioen aldaketa egituratzaileari hasierako onespena ematea, UE-6 inguruko 5. poligonoko 558 eta 850. lurtzatiean. Hori guztiak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. eta 77.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2.- Aldaketa espediente guztia jendurrean jartzea, hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, zeina Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan ere kaleratuko dena. Halaber, espedientea bizilagun edo interesdunen eskura egonen da udal bulegoetan, egoki jotzen dituzten iradokizun edo alegazioak egiteko.

3.- Jendurreko informazioarekin batera, hasieran onetsitako Udal Plan Orokorraren aldaketa lurralde-antolamenduari eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunari bidaltzea, aldaketak ukitutako Nafarroako Gobernu departamentuen eskumeneko gaiei buruzko txostenak biltzeko, eta txosten orokorra egitea, dagozkion kontsiderazio sektorialak oinarritzeko.

4.- Alkatetzari ahalmena ematea, erabaki hau behar bezala gauzatzeko behar diren egintzak har ditzan.

5.- Akordioa sustatzaileei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

## **5. ARANTZAKO LAEE EGOKITURARI ONESPENA.**

Idazkariak azaldu du 2022ko martxoaren 24an egindako Arantzako Udalaren osoko bilkura arruntean onartu zela Lurralde Antolamendurako Estrategia eta Eredua eta bertan bi garapen eredu azaltzen zirela. Halaber, 2022ko abuztuaren 23ko Nafarroako Gobernuko Hirigintza Ataleko txostenean xedaturikoaren arabera, bi garapen ereduetatik bat aukeratu beharra zela azaltzen zen.

Horrela bada, 2022ko azaroan LAEE txostena egokitu egin zen eta bi garapen ereduetatik bigarrena aukeratu zen, inguruari hobekiago egokitzen zelakoan. LAEE egokitua Nafarroako Gobernuko Hirigintza Atalari helarazi zitzaion onespena emateko, baina 2022ko azaroaren 25ean egindako txostenean xedaturikoaren arabera, bertzeak bertze, bi garapen ereduetatik bat aukeratzen denez, osoko bilkurak onespena eman beharra dio LAEE egokituari eta akordioa, LAEE txostenaren eginbidearekin batera, Hirigintzako Atalari helarazi behar zaio.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KOPORAZIOKO LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Eredu txosten egokitua onartzea.

2.- Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren eta Arantzako Udalaren artean sinatu beharreko Aurretizko Itunaren idazketa onartzea.

3.- LAEE Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak onartua izateko, izapidetutako espedientea lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen sailari helaraztea.

4.- LAEE onartu ondoren, Udal Hirigintza Plana idazten hastea.

5.- Erabaki hau eta Arantzako LAEE udalaren webgunean argitaratzea, herritarrek eta interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten.

## **6. BALORAZIO PONENTZIA BERRIKUSTEKO PROZEDURA HASTEA.**

Idazkariak azaldu du Arantzako Balorazio Ponentzia 2018an berrikusia izan zela. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 35. artikuluan xedaturikoren arabera, balorazio ponentziak onetsi zenetik edo azkeneko berrikusi zenetik bertz urte igaro ondoren berrikusiak izan beharrak dira.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

- 1.- 2023ko aurrekontua eta haren exekuzio oinarriari hasierako onespina ematea.
- 2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki taulan argitaratzea, hamabortz eguneko epean herritar eta interesdunek espedientea aztertu eta hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Adierazitako epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez badira, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko onestea 2023ko aurrekontua eta iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

### 9. 2023KO PLANTILLA ORGANIKOA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak Arantzako Udalaren 2023ko plantilla organikoa azaldu du.

LANPOSTUAREN IZENA	ARAUBIDE JURIDIKOA (1)	LANALDIA (%)	MAILA	SARBIDEA (2)	OSAGARRIAK (3)						LANEKO EGOERA	EUSKARA MAILA (4)
					L.O.	M.O.	B.O.	Z.L.O.	L.L.O.	A.B.O.		
Idazkaria/Kontu-hartzailea, Igantziako Udalarekin balera, burua Arantzan	F	100	A	O.L.	3,72		35		5		Hutsik	C1 (A-I)
Administrari- ofiziala	F	100	C	O.L.	3,36	12					Jardunean	C1 (A-I)
Zerbitzu anitzeko arduraduna	F	100	C	O.L.	6,36	12					Jardunean	B2 (A) B1 (I)
Garbitzailea	F	100	E	O.L.	19,85	15					Hutsik	B2 (A) B1 (I)

LABURDURAK: (1) F = funtzionarioa; A.A.L. = administrazio araubide bitarteko langileak. (2) O. = oposizioa; O.L. = oposizio-lehiaketa. (3) L.O. = lanpostu osagarria; M.O. = maila osagarria; B.O. = baleraezintasun osagarria; Z.L.O. = zuzendaritza lanpostuko osagarria; L.L.O. = lanaldi luzearen osagarria; A.B.O. = arrisku berezko osagarria. (4) Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 2019ko irailaren 23an egindako txostena: A= ahoz; I= idatziz.

IZEN-ABIZENAK	ARAUBIDE JURIDIKOA	MAILA	GRADUA	LANPOSTUA	ZERBITZU AITORTUAK DATA	ADMINISTRAZIO EGOERA	BOSTURTEKOAK
Nagore Madariaga Iriarte	A.A.L.	A	-	Idazkaria/Kontu-hartzailea	01/09/2020	Jardunean	-
Joseko Urreta Arribillaga	F	C	4	Administrari-ofiziala	02/03/1992	Jardunean	6
Angel Urtegi Telleke	F	C	2	Zerbitzu anitzeko arduraduna	07/02/2011	Jardunean	2

Horrela bada, azaldu du Arantzako Udalaren 2023ko plantilla organikoa onartzeko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatutakoaren arabera egin beharra dela.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

- 1.- Arantzako Udalaren 2023ko plantilla organikoari hasierako onespina ematea.
- 2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki taulan argitaratzea, hamabortz eguneko epean herritar eta interesdunek espedientea aztertu eta hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Adierazitako epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez badira, behin betiko onestea 2023k plantilla organikoa eta iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

- 1.- Arantzako Balorazio Ponentzia berrikusteko prozedurari hasiera ematea.
- 2.- Nafarroako Zerga Ogasunari Arantzako Balorazio Ponentzia berrikusteko informazioa eskatzea.
- 3.- TRACASA enpresa izendatzea Arantzako Balorazio Ponentziaren berrikuste proiektua egiteko.
- 4.- Akordio hau Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren eta Ondare Zergen Zerbitzuari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

## **7. LANDA GARAPEN ETA INGURUMEN SAILAK 2022KO AZAROAREN 16AN AURKEZTUTAKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOA ETA NEKAZARITZA ETA ELIKADURA PRODUKTUETAN HAREN ADIERAZPENA ARAUTZEN DITUENA.**

Alkateak Landa Garapen eta Ingurumen Sailak 2022ko azaroaren 16an aurkeztutako Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean nekazaritza ekoizpen ekologikoa eta nekazaritza eta elikadura produktueta haren adierazpena arautzen dituenaren nondik norakoak azaldu ditu.

Zentzu horretan, adierazi du azkenean nekazarien eskumenak mantentzen direnez, ez duela beharrezkoa ikusten horren inguruko adierazpen instituzional bat egitea. Dena dela, aipaturiko Foru Dekretua oraindik ez dela onartu azaldu du, beraz, behar izanez gero, aitzinago adierazpen bat egiteko aukera izanen zen.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

- 1.- Landa Garapen eta Ingurumen Sailak 2022ko azaroaren 16an aurkeztutako Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean nekazaritza ekoizpen ekologikoa eta nekazaritza eta elikadura produktueta haren adierazpena arautzen dituenaren adierazpen instituzionala egitea bertan behera uztea.

## **8. 2023KO AURREKONTUA ETA EXEKUZIO OINARRIAK. HASIERAKO ONESPENA.**

Idazkariak 2023ko aurrekontua eta haren exekuzio oinarriak azaldu ditu.

Horrela bada, azaldu du 2023ko aurrekontua eta haren exekuzio oinarriak onartzeko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 267tik 272ra bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera egin beharra dela.

## **10. ALKATEAREN EBAZPENAK.**

146/2022 eta 156/2022 arteko ebazpenak berretsi egin dira.

## **11. ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egiten.

Halaber, hurrengo osoko bilkura urtarrilaren bigarren astetik aitzin izanen dela jakinda eta akordio batzuk hartzeko dagoen premia ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, honako puntu hauek osoko bilkura honetan eztabaidatu daitekeela dio idazkariak.

## **12. ARNASA ETA BIDEA ZABALTZEKO UDALERRI EUSKADUNEN ADIERAZPEN BATERATUA.**

Berriki ezagutu ditugu udalerrri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoaren datu gehiago. Euskararen ezagutzak gora egin duenez, gero eta gehiago dira udalerrri euskaldunak, eta euskararen lurgunea ere sendotzen ari da. UEMARA gehitu diren azken udalak kontuan hartuta, berriz, 300.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzen dugu Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko herriek.

Ez da nolanhiko zenbakia. Euskal Herrian ekoizten den euskararen erdia udalerrri euskaldunetan ekoizten baita. Hemen dago, kuantitatiboki, euskararen errealitatearen erdia. Kualitatiboki, berriz, euskarari hauspoa eta arnasa ematen diote udalerrri euskaldunek. Berebiziko garrantzia dute euskararen biziberritzean, transmisioan eta indarberritzean, eta herri honen izaeraren ardatza dira. Euskararen herriak gara, eta Euskararen Herria osatzen dugu denon artean. Euskal Herria.

Hizkuntzaren osasuna, ordea, erabilerak erakusten du, eta hor erronka handiak ditugu, gaur bertatik hasita. Hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskara sustatzeko ariketa handia egin dugu azken egunotan, bai herritarrek, gizarte eragileek zein erakunde publikoek.

2022ko abenduaren 2an amaitu zen Euskaraldia, eta beste behin ere ederra izan da herri honek euskaraz bizitzeko adierazi duen gogoia.

Euskararen biziberritzea, ordea, ezin da ulertu ahalegin indibidualen batuketa moduan. Erakunde publikooi eredu izatea dagokigu, eta herritarrei euskaraz bizitzeko bidea bermatzea eta erraztea.

Udalerrri euskaldunei eustea ezinbestekoa du herri honek, euskararen herria izaten jarraituko baldin badu. Horretarako, udalerrri euskaldunak garatzeko erabakiak eta bitartekoak behar ditugu, udalerriei bizirik eusteko. Baina baita udalerrri horietan euskarari eusteko ere. Hirigintzan, ekonomian, lurralde antolaketan, kulturen edota turismoa sustatzeko ekimenetan hartzen ditugun

erabakiek eragin handiagoa izan dezakete euskararen erabileran eta bilakaera soziolinguistikoan, euskara zerbitzuetatik hartzen diren erabakiek edota egiten den hizkuntza politikak baino. Aurten, Euskararen Eguna, hori ikusarazteko eta ulerrarazteko mugarriz izatea nahiko genuke.

Izan ere, udalerrri euskaldunetan euskarari eusteko egiturazko erabaki ausartak behar ditugu, elebitasun orekatua gainditu eta oraindik ere hauskorrak diren udalerrri euskaldunetan euskarak bidea eta arnasa zabaltzen segi dezan.

### **13. MARIA DEL CARMEN RINCÓN HUERTAREN HILKETA MATXISTA GAITZESTEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Arantzako Udalak, abenduaren 20an gertatutako María del Carmen Rincón Huertaren erailketaren aitzinean, honakoa ADOSTEN DU:

- 1.- Gaitzespen guztia adieraztea María del Carmen Rincón Huertaren erailketa matxistaren aitzinean, gure elkartasun eta babesa adieraziz haren familia eta lagunei, eta baita Cortesko herriari ere.
- 2.- Cortesko Udalak erailketa matxista gaitzesteko onartutako adierazpen instituzionalarekin bat egitea.
- 3.- Gure gizartean gertatzen den edozein motatako indarkeria eta jarrera sexistak gaitzesten ditugula argi uztea eta indarkeria hauek ezabatzeko lanean jarraituko dugula berrestea.
- 4.- Gonbitea luzatzen diegu herritarrei emakumeek jasaten dituzten indarkeria-mota desberdinen aitzinean geldirik egon ez daitezen, eta emakumeek segurtasunez eta askatasunez bizitzeko duten eskubidea aldarrikatzen dugu.

### **14. 2023KO LAN EGUTEGIA ETA EGUN BALIOGABEEN DEKLARAZIOA.**

Idazkariak proposaturiko 2023ko lan egutegia eta egun baliogabeen deklarazioa azaldu ditu.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KOPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

- 1.- 2023ko lan egutegia eta egun baliogabeen deklarazio proposamena onestea, Arantzako Udalarentzat honako jaiegun egutegi ofiziala ezarriz:
  - Urtarrilaren 6a: Errege eguna.
  - Otsailaren 3a: Herriko Inauteriak.
  - Apirilaren 6a: Ortzegun Santua.
  - Apirilaren 7a: Ortzirale Santua.
  - Apirilaren 10a: Pazko astelehena.
  - Maiatzaren 1a: Langileen eguna.



- Uztailaren 7a: San Fermin eguna (jai eguna).
- Uztailaren 24a: Jai eguna.
- Uztailaren 25a: Santiago eguna.
- Abuztuaren 14a: Jai eguna.
- Abuztuaren 15a: Ama Birjinaren jasokundea.
- Abuztuaren 28a: Jai eguna.
- Azaroaren 1a: Santu Guztien Eguna.
- Abenduaren 4a: San Frantzisko Xabierkoaren ondoko astelehena.
- Abenduaren 8a: Ama Birjina Sortzez Garbia.
- Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

2.- Orobat, baliogabeak deklaratzeko, 2023an epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak eta Arantzako Udalarentzat jaiegun gisa ezarri diren egunak.

3.- Arantzako Udalaren zerbitzura dauden langileen lanaldia 2023rako egiazko 1.592 lanorduetan finkatzea.

4.- Eguneroko lanaldi orokorra, astelehenetik ortziratera, 7 ordu eta 20 minutukoa finkatzea. Ordutegiaren zati finkoa 8:30etatik 14:00ak arte izanen da. Gainerako ordutegia langileek aukeratuko dute, malgutasunez, 6:40etatik 8:40ak bitarte eta 14:00etatik 17:00ak bitarte.

5.- Udal bulegoetan jendaurreko arreta ordutegia astelehenetik ortziratera, 10:00etatik 13:00etara ezartzea.

6.- Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

7.- 2023ko lan egutegia Arantzako Udaleko langileei jakinaraztea.

Bertze aztergairik izan gabe, 21:00 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

**ALKATEA,**

Dabid Iturria Almandoz



**IDAZKARIA,**

Nagore Madariaga Iriarte

